**BI MILA ETA HAMAHIRUKO MAIATZAREN HAMARREAN ETXARRI ARANAZKO BATZARRAK EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.** /ACTA DE LA SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO DE ETXARRI ARANATZ EL DÍA DIEZ DE MAYO DE DOS MIL TRECE

2013ko maiatzaren 10ean, 20:30etan, Etxarri Aranazko Udalak Ezohiko Osoko Bilkurara arauzko moduan deitu, eta lehenengo deian osatu da, JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA alkatea mahaiburua dela eta honako zinegotzi hauek bertaratuak.

En Etxarri-Aranatz y casa consistorial, siendo las veinte horas del día 10 de mayo de dos mil trece se reúnen los concejales en sesión plenaria extraordinaria, tras haber sido convocada la misma en forma legal, bajo la presidencia de la Sra. Alcalde-Presidente D. Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena y con la asistencia de los siguientes concejales:

**Bertaratu direnak** /Asisten:

**AITOR KARASATORRE MUGURUZA jn.**
**ENEKA MAIZ ULAYAR and**
**EDURNE IGOA LIZARRAGA and**
**KITZ MENDIOLA BARANDALLARA and.**
**MARIA ARANTZAZU ARTIEDA IGOA and.**
**MAIDER GOÑI ERRAZKIN and**
**JUAN ANTONIO EXTREMERA APESTEGIA jn.**
**IÑIGO LAZKOZ LEKUONA jn.**
**MIGUEL ANGEL GOÑI IXURKO jn.**

**Bertaratu ez direnak eta justifikatu dutenak** / Excusan su asistencia:

**Idazkaria /**Secretaria
**Silvia Gonzalo Etxarri**

Alkateak azaldu du gaurko bileran Sakanako Mankomuniteko itzultzailea egongo dela.

A continuación el alcalde informa que estará presente el traductor de la Mancomunidad de Sakana.

Idazkariak bilkura grabatuko du. Alkateak baimena ematen die hedabideei, publikoari eta zinegotziei bilkura grabatzeko eta argazkiak ateratzeko.

La Secretaria grabará la sesión. El Sr. Alcalde comunica que permite sacar fotografias y la grabación de la sesión a la prensa y resto de público y/o concejales.

Alkateak bilkurari hasiera eman eta Ezohiko Osoko Bilkuraren deiaren arrazoia

El Sr. Presidente levanta la sesión y justifica la celebración de la sesió

azaldu du: 27/2002 Foru Legea dioen arabera, herritarrek herri kontsultarako eskaera aurkeztu ondoren, hilabeteko epean udalbatzak bildu behar da gaia tratatzeko.

extraordinaria: Una vez presentada una solicitud de consulta popular por los vecinos, de conformidad con lo que establece la ley Foral 27/2002 el Alclade debe convocar una sesión para debatir la petición.

## 2.-HERRI KONTSULTA: "Ados al zaude Etxarri Aranatz, Euskal Herriko udalerria izanda, Europako estatu independente berri baten parte izatearekin?"

*CONSULTA POPULAR:* Está usted de acuerdo con que Etxarri Aranatz como municipio de Euskal Herria forme parte de un nuevo estado independiente en Europa?"

Alkateak azaldu du 2013ko apirilaren 18an herritarrek kontsulta eskaera aurkeztu zutela, 359 herritarren babesarekin. Galdera honako hau da:

"Ados al zaude Etxarri Aranatz, Euskal Herriko udalerria izanda, Europako estatu independente berri baten parte izatearekin?"

Idazkariari eskatu dio prozedura azaltzeko. Idazkariak txostenaren edukiaren berri eman, eta behar den oharra egin du. Ondoren hiru taldeak hitz egiten dute: PP, NABAI eta BILDU

Alderdi popularreko zinegotziak, Juan Antonio Extremera jaunak, hitza hartu, eta kontra bozkatu behar duela esan du, Nafarroa Espainiako erkidego bat delako eta halakoa izaten jarraitu behar duelako. Espainia erakundeak eta foruak errespetatzen dituela esan du. Herri kontsulta ez du ezertarako balio, aurrera atera behar ez delako. Europan autodeterminaziori buruzko idazki bat bidali behar du, idazkariak zinegotzi guztiei helarazteko. Espainiak onartzen ez badu, Europak ez du Euskal Herriaren independentzia onartuko, eta Nafarroa Espainia izango da beti. Berak uste du Euskal Herriaren independentziari buruz Espainia osoak erabaki behar duela. Esaten du ez dela une egokia herri kontsulta egiteko eta auzo-lotsa sentitzen duela. Izan ere, gaur egun

El Sr. Alcalde explica que con fecha 18 de abril de 2013 se presentó la solicitud de consulta avalada por 359 vecinos. Siendo la pregunta la siguiente:

"Está usted de acuerdo con que Etxarri Aranatz como municipio de Euskal Herria forme parte de un nuevo estado independiente en Europa?"

*Solicita a la secretaria que explique el procedimiento. La secretaria hace referencia al contenido de su informe preceptivo y realiza la advertencia correpondiente.*
*A continuciaón abre turno a los tres grupos que componen la corporación: PP, NABAI y BILDU*

*Toma la palabra el concejal del Partido Popular, D. Juan Antonio Extremera, quien comunica que va a votar en contra porque Navarra es una Comunidad de España y va a seguir siéndolo. España respeta a las entidades y a los fueros. La consulta va a servir de poco porque no va a salir adelante. Enviará un escrito muy interesante sobre la autodeterminación en Europa a la Secretaria a fin de que se traslade a todos los concejales. Añade que Europa no va a aceptar la independencia si España no la acepta y que Navarra siempre será España. Entiende que todo España debería decidir sobre la independencia de Euskal Herria, que no es momento de plantear esta consulta y añade que siente vergüenza ajena de que, habiendo temas más graves (paro, cierre de empresas y puerta a puerta, por ejemplo), se esté tratando y perdiendo tiempo con este tema.*

gai larriagoak izanda (adibidez, langabezia, enpresak ixtea eta atez ateko bilketa sistema, adibidez) ez du ulertzen zergatik herri kontsultako gaia tratatu eta horrekin denbora galdu behar den. Alderdi Popularra hemen dago laguntzeko, Sakanan lana izatea nahi du, eta, horretarako, enpresaburekin bilduko dira, hori garrantzitsuena baita.

Extremera jaunak bukatu ondoren, Arantza Artieda zinegotziak NABAiren taldearen izenean honako testu hau irakurri du.

"AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA

Herrien autodeterminazio printzipioa balio unibertsaleko printzipio gisa aurkezten da, Estatuko edozein herri hartzen duena.

Demokrazia faltak eta herrialdeetan askatasuna ez izateak nazio aniztasuna duten herrialdetan tentsioa sortzen du, izan ere, herria kontsultatuz izanez gero, sahiestuak izan zitezkeen gatazkak sortu izan ditu. Bestalde, herrialde batek bere etorkizunari buruzko nazio mailako eztabaida baketsua egitea desbertintasunei aurre egiteko modu arrazional eta zibilizatua da. Hala izan da Kanadako Quebec lurraldean eta Suedia eta Norvegiaren arteko disoluzioaren kasuan. Eta hor daukagu baita ere Eskozioaren adibidea.

Demokrata batek bere iritziaren aurkako ideiak errespetatu behar ditu, izan ere, arerioaren bidezko eskubidea defendatu behar du. Voltairek esan bezala, Ez nago ados zuk esandakoarekin, baina zuk hori esateko duzun eskubidea hil arte defendatuko nuke.

Herrero y Rodríguez de Miñón, politikari eta

*Continua diciendo que el PP está aqui para ayudar, que quiere que haya trabajo en Sakana y que preve reunirse con empresarios para ello, porque esto es lo realmente importante.*

*Finalizada la intervención del Sr. Extremera, la concejal Arantza Artieda lee el siguiente texto en nombre de su grupo NABAI.*

*"DERECHO DE AUTODETERMINACIÓN*

*El principio de autodeterminación de los pueblos se presenta como un principio de valor universal que, trascendiendo en su aplicación las situaciones coloniales, alcanza a los pueblos de cualquier Estado.*

*La falta de democracia, de libertades dentro de los países, muchos de ellos paradójicamente democráticos, es precisamente lo que lleva a generar tensiones en países plurinacionales e incluso conflictos que podrían haber sido evitados si se hubiera consultado la voluntad del pueblo. Un debate pacifico a nivel nacional sobre el futuro que quiere llevar es una manera racional, civilizada de encarar los problemas, las diferencias. Éste es el caso de Canadá y el Quebec, o de la disolución pacifica de Suecia y Noruega. Y también tenemos el ejemplo de Escocia.*

*Un demócrata debe respetar aquellas ideas opuestas a las propias, defender el derecho legítimo del contrincante. Como decía Voltaire, en lo que puede resumirse como el principio de la libertad de expresión, No estoy de acuerdo con lo que usted dice, pero defendería hasta la muerte su derecho a decirlo.*

*"Una nación es ante todo y sobretodo, la voluntad*

legelari espainiarraren hitzetan

Nazio bat batik bat elkarrekin bizitzeko borondatea da, baina elkarrekin boluntarioki bizitzeak lehendabizi elkarbizitzeko eroso sentitzea eskatzen du.

Zaila de berezko nazio bat definitzeko irizpideak ezartzea,  baina egiaz garrantzitsuena da herritar askok horrela sentitzen dutela, eta modu demokratiko batean adierazteko eskubidea dutela.

Gaur egun autodetrminaziorako eskubidea Nazioen Gutuna bezalako nazioarteko dokumentu garrantzitsuenetan jasotzen da. NBE-ren Batzar Ororkorraren hainbat ebazpenetan ere aipatzen da. Baina, nazioarteko legerian aipamen asko badira ere gai hau ez dago oraindik ebatzita. Aipatutako eskubidea oraindik ez da dokumentu nagusienean, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean, agertzen. Hala ere, dokumentu hau ez da loteslea, ez da nahitaezkoa betetzea, eta gainera, autodeterminazio eskubidea herri kontzeptu anbiguo batera mugatzen du. Nahitaezkoa da Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala garatzea, ahal den neurrian anbiguotasunak sahiesteko eta deklarazioa osatu ahal izateko, baina gainera, deklarazioaren betetzea derrigorrezkoa izan beharko da autodeterminazio eskubidea ezerezean ez geratzeko.

Zentzu horretako deklarazio batek jomuga nazionalista duten herriei duten herrialde ideia

*de vivir juntos: pero vivir juntos voluntariamente exige antes estar cómodos para convivir"*

*Herrero y Rodríguez de Miñón, político y jurista español*

*Es difícil entablar unos criterios para definir que es y que no una nación propia y diferenciada. Lo realmente importante es que gran parte de la población así lo siente y tienen el derecho a expresarlo de manera democrática .El derecho a la autodeterminación está recogido actualmente en algunos de los documentos internacionales más importantes como la Carta de Naciones. También numerosas resoluciones de la Asamblea General de la ONU hacen referencia a este principio y lo desarrollan. Pero a pesar de todas estas referencias en el derecho internacional, esta cuestión no está ni mucho menos resuelta. Dicho derecho no está aún incluido en el principal documento como es la Declaración Universal de los Derechos Humanos, que además no es vinculante, no es de obligado cumplimiento, y además, el derecho de autodeterminación se limita al ambiguo concepto de pueblo. Es imprescindible desarrollar la Declaración Universal de los Derechos Humanos para completarla y para evitar en la medida de lo posible ambigüedades, pero además, dicha declaración debe considerarse de obligado cumplimiento para que no se quede en papel mojado.*

*Una declaración en este sentido ayudaría a pueblos con aspiraciones nacionalistas a desarrollar su idea de país si el pueblo lo apoya. Limitaría la opresión, y la falta de libertades con una democracia más fuerte. Se ofrecería una vía*

garatzen lagunduko lieke, beti ere, herriak horren alde egiten baldin badu. Demokrazia indartsuago batek zapalkuntza mugatuko luke, eta baita ere, askatasun falta. Nazio askapen mugimenduei hautabide berria eskainiko lieke, baketsua, demokratikoa, eta horrela Balkanetakoa bezain gatazka odoltsuak sahiestuko lirateke. Estatu espainarrean ere heriotza asko sahiestu ahalko lirateke. Litekeena da Estatuaren eta enpresen interesak eta interés estrategikoak eskubide honen alde ez egotea edota beldurra izatea, baina herrien eskubidea da bere etorkizuna modu demokratikoan erabakitzea, eta horrela izan dadin behin eta berriz saiatu beharko gara.

Amaitzeko, esan nahi dugu herritarrek hitza eta iritzia adierazi ahal izatearen alde gaudela. Bestalde, erreferenduna egiteak herritarren aurre gogoeta behar du, eztabaida libre eta lasaia, herritar guztiak libreki hitz egin dezaten, iritzia eman, galdetu, ideiak argitu eta hartu beharreko erabakiaren alde onak eta txarrak jakin behar dituzte, bestela erreferenduna ez litzateke egiazko eztabaida izanen."

Ondoren, Eneka Maiz Bilduren izenean honako testu hau irakurri baino lehen Extremera jaunari erantzun dio eta esan dio ez duela ulertzen zergatik ordezkatzen duen bere ustez lotsagarria den herri bat.

Irakurritako testua:

"Erabakitzeko eskubidea herrien oinarrizko giza-eskubidea da. Hala aitortzen dute nazioarteko lege nagusiek:

1945eko <u>Nazio Batuen Gutunak</u>

*alternativa, pacifica, democrática a los movimientos de liberación nacional, de manera que se evitarían conflictos tan sangrientos como el de los Balcanes. Se evitarían muchas muertes también dentro del estado Español. Los intereses estatales, empresariales o estratégicos, pueden no estar a favor de este derecho, pueden tener miedo, pero es un derecho de los pueblos que puedan decidir su futuro de forma democrática y tenemos que insistir para que así sea.*

*Nosotros nunca nos opondremos a que hable la ciudadanía y exprese su opinión, sino todo lo contrario. Asimismo, entendemos que los referendum deben ir precedidos de deliberación entre la ciudadanía, de deliberación libre y serena, para que todos puedan expresarse libremente, opinar, preguntar, aclarar ideas y sepan los pros y los contras de las decisiones a tomar. Sin este proceso, el referendum no es una práctica auténticamente deliberativa."*

*A continuación, Eneka Maiz antes de leer el siguiente texto en nombre del grupo Bildu responde a lo dicho por el Sr. Extremera y comenta que no entiende cómo está aquí, respresentando a Etxarri Aranatz, si tanto vergüenza siente por lo que se hace en el pueblo.*

*Texto leido:*

*"Erabakitzeko eskubidea herrien oinarrizko giza-eskubidea da. Hala aitortzen dute nazioarteko lege nagusiek:*

*1945eko Nazio Batuen Gutunak autodeterminazio printzipioa aldarrikatzen du.*

*1966eko Giza Eskubideen Aldeko Nazioarteko Itunak ere aitortza hori egiten du.*

*Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren*

autodeterminazio printzipioa aldarrikatzen du.

1966eko Giza Eskubideen Aldeko Nazioarteko Itunak ere aitortza hori egiten du.

Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren hainbat eta hainbat ebazpenetan ere erabakitzeko eskubidearen printzipioa garatzen da.

Hortaz, autodeterminazioa Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren printzipio nagusietako bat da, herritarrengan eskubide eta betebehar juridikoak sortzen dituena.

Baina nazioarteko legeek esan gabe ere, guk, etxarriarrok, euskaldunok, badakigu eskubide hori unibertsala dela. Funtsezkoa herriendako eta herritarrendako. Euskaldunok nazio bat gara, eta nazio moduan jokatu nahi dugu gure etorkizunarekin. Gaur, hemen, herrien determinazio librerako eskubidea aldarrikatzen dugu, eta gai hori lehen planora ekarri nahi dugu, gehiengo sozial politiko eta instituzionalak hori eskatzen du eta.

Baina eskubide hori, zoritxarrez ukatua izan dugu mendez mende euskaldunok. Izan ere, gogoratu behar dugu 2012 urtean 500 urte bete ziren zirela Gaztelak Nafarroa konkistatu zuenetik. Albako dukearen tropek Nafarroako erreinuaren inbasioari ekin zioten, eta uztailaren 21ean Etxarritik pasatu ziren, hain zuzen ere, sarraskia egitera zihoazela. Gaztelako tropek Nafarroa bortxaz konkistatu zuten, eta sekula ez zaigu nafarroi galdetu ea zer izan nahi dugun.

Besltalde, batzuek diote 1978ko konstituzioan erabaki genuela gure etorkizuna. Tinko esan nahi dugu kontituzio hura iruzur handia izan zela guretzako. Erreferemdum hori baldintza predemokratikoetan egin zen, hasieratik gure herriaren izatea edo existentzia bera ukatu zuelako. Gainera, emaitza ez zen batere esanguratsua izan euskaldunen artean, eta 1960tik aurrera jaio ginenok ez genuen bozkatzerik izan.

*hainbat eta hainbat ebazpenetan ere erabakitzeko eskubidearen printzipioa garatzen da.*

*Hortaz, autodeterminazioa Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren printzipio nagusietako bat da, herritarrengan eskubide eta betebehar juridikoak sortzen dituena.*

*Baina nazioarteko legeek esan gabe ere, guk, etxarriarrok, euskaldunok, badakigu eskubide hori unibertsala dela. Funtsezkoa herriendako eta herritarrendako. Euskaldunok nazio bat gara, eta nazio moduan jokatu nahi dugu gure etorkizunarekin. Gaur, hemen, herrien determinazio librerako eskubidea aldarrikatzen dugu, eta gai hori lehen planora ekarri nahi dugu, gehiengo sozial politiko eta instituzionalak hori eskatzen du eta.*

*Baina eskubide hori, zoritxarrez ukatua izan dugu mendez mende euskaldunok. Izan ere, gogoratu behar dugu 2012 urtean 500 urte bete ziren zirela Gaztelak Nafarroa konkistatu zuenetik. Albako dukearen tropek Nafarroako erreinuaren inbasioari ekin zioten, eta uztailaren 21ean Etxarritik pasatu ziren, hain zuzen ere, sarraskia egitera zihoazela. Gaztelako tropek Nafarroa bortxaz konkistatu zuten, eta sekula ez zaigu nafarroi galdetu ea zer izan nahi dugun.*

*Besltalde, batzuek diote 1978ko konstituzioan erabaki genuela gure etorkizuna. Tinko esan nahi dugu kontituzio hura iruzur handia izan zela guretzako. Erreferemdum hori baldintza predemokratikoetan egin zen, hasieratik gure herriaren izatea edo existentzia bera ukatu zuelako. Gainera, emaitza ez zen batere esanguratsua izan euskaldunen artean, eta 1960tik aurrera jaio ginenok ez genuen bozkatzerik izan.*

*Hortaz, Bildun ordezkatuak gauden alderdi eta herritarrok argi dugu zer izan nahi dugun: Euskal Herria estatu independentea izatea nahi dugu. Arrazoi asko ditugu. Arrazoi historikoak, kulturalak, linguistikoak, sozialak, identitarioak, juridikoak eta ekonomikoak.*

*Beraz, bai bozkatzen dugu Etxarrin herri-galdeketa egiteari.*

*Gurea etorkizuna. Gurea erabakia."*

Hortaz, Bildun ordezkatuak gauden alderdi eta herritarrok argi dugu zer izan nahi dugun**: Euskal Herria estatu independentea izatea nahi dugu**. Arrazoi asko ditugu. Arrazoi historikoak, kulturalak, linguistikoak, sozialak, identitarioak, juridikoak eta ekonomikoak.

**Beraz, bai bozkatzen dugu Etxarrin herri-galdeketa egiteari.**

**Gurea etorkizuna. Gurea erabakia."**

Gaia aztertu ondoren, espedientea ikusirik (udal abokatuaren txostena eta idazkariaren derrigorrezko txostena barne eta idazkariaren oharra entzunda), Etxarri Aranazko Udalbatzak, BILDU eta NABAI taldeetako zinegotzien aldeko botoekin (PPko zinegotziak kontra bozkatu du) ERABAKI DU:

1.-Proposatutako herri kontsulta egitea. Galdera honako hau izango da:

"Ados al zaude Etxarri Aranatz, Euskal Herriko udalerria izanda, Europako estatu independente berri baten parte izatearekin?"

2.- Herri Kontsulta egiteko izapideak hastea eta Espainako Gobernuaren baimena eskatzea, Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren bitartez. Horretarako, alkateak, bost egun naturaleko epean, Nafarroako Gobernuko Lehendakariari igorriko dio Osoko Bilkurak hartutako aldeko erabakiaren hitzez hitzeko ziurtagiria, espedientearen kopia batekin batera, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak nazioko gobernuari baimen eskaria egiteko, erabakia jaso eta hamar egun naturaleko epean.

3.-Akordioa eskatzaileei jakinaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

Bukatzeko alkateak informatu du maiatzaren 15ean, asteazkena, 12:00etan, Nafarroako Gobernuko Erregistro orokorrera joango dela onartu den eskaera aurkeztera.

*Tras debatir el asunto, se procede a la votación del asunto. A la vista del expediente que incluye el informe del abogado municipal y el informe preceptivo de la Secretaria y oida su advertencia; El Pleno (con los vostos favorable de BILDU y NABAI y el voto en contra del concejal del PP) ACUERDA:*

*1.-Celebrar la consulta popular solicitada. La pregunta será: "Está usted de acuerdo con que Etxarri Aranatz como municipio de Euskal Herria forme parte de un nuevo estado independiente en Europa?"*

*2.-Iniciar los trámites para la celebración de la consulta y solicitar la preceptiva autorización al Gobierno de España a través de la Presidenta del Gobierno de Navarra. Para ello en el plazo de cinco días naturales el Alcalde remitirá una certificación literal del acuerdo favorable del Pleno, junto con una copia del expediente, a la Presidenta del Gobierno de Navarra afin de que ésta formule la solicitud de autorización ante el Gobierno de la Nación en el plazo de diez días naturales desde la recepción del acuerdo.*

*3.-Trasladar el presente acuerdo a los solicitantes para su conocimiento ye efectos oportunos.*

*Para finalizar el Sr. Alcalde informa que el miércoles 15 de mayo a las 12:00 h acudirá al Registro General del Gobierno de Navarra para presentar la solicitud acordada.*

Eta beste gairik ez zegoenez, 21:00etan presidenteak Osoko Bilkura amaitutzat eman eta idazkariarekin batera akta sinatu du, eta idazkariak horren fede ematen du.

Siendo las 21:00 horas, no habiendo más asuntos o temas que tratar, se levanta la sesión por parte del Alcalde Presidente, firmando el acta conmigo el Secretario que certifico